



3 MILIOI EURO AMAROZ PAPER FABRIKARENTZAT

Eusko Jaurlaritzak eman dio abala Tolosatik Legorretara joaterakoan egindako inbertsioari aurre egiteko >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-12-30**

VIIURTEA 1.892.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



A. ALTUNA

JOSE LUIS URDANGARIN TOLOSALDEA GARATZEN-EKO GERENTEA

«Eskualdean ditugun beharretara egokitzeko ahalegin bat egin behar da»

URTEURRENA Tolosaldea Garatzen agentziak 15 urte bete ditu aurten; denbora honetan 396 enpresa eta 771 lanpostu sortu dira **2-3**

**Inaxio Perurena
300 kiloko harria
jasotzen saiatuko da**

ASTEASU Herri Kirol jaialdia izango da 16:30ean; Perurenarekin batera aizkolariak izango dira **7**

**Eguberrietako
kontzertu
txalotua, 50.
urteurrenaren
atarian**

ALEGIA Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek urte berezia dute aurretik **6**



Inpernu Gazte Asanbladako kideek batzarra egin zuten atzo iluntzean. A. IMAZ

**Korazonisten Eliza
Inpernu Gaztetxea
bihurtu dute
bigarren aldiz**

TOLOSA Inpernu Gazte Asanbladako kideek okupatu zuten eraikina atzo goizean **4**



IRUÑA JATETXEA, 28 urte hauetan izandako harreragatik, eskerrak emanez agurtu nahi ditu bere bezero eta lagunak **abenduaren 30ean, arratsaldeko 18:30**etatik aurrera, emango den lunch-era gonbidatuz.

15 urte dira Tolosaldea Garatzenek atek ireki zituenetik. Eskualdearen garapenaz eta sustapenaz arduratzen den agentziak kalitatezko enpleguaren alde egin izan du 1994az geroztik.

Eskualdea garatzen

AINHOA ALTUNA

Krisi ekonomikoaren zurrunbiloan dabil azkenaldian mundua. Krisiaren baitan dabil Euskal Herria eta krisiak jo gaitu eskualdean ere. Ez da lehen izan eta ez da azkena izango seguruenik.

Urte batzuk atzera egiten badugu, 90eko hamarkadan ere ezintasun ekonomikoan bizitakoak gara. Garai hartan, krisiari bertako irtenbide bat eman nahian sortu zen Tolosaldea Garatzen.

Hamabost urte daramatza eskualdeko garapen ekonomikoaren alde lanean. Hasiera batean 27 herrietako bazkideekin lan egin izan bazuen ere, gaur egun, eskualdeko 28 herriek osatzen dute agentzia.

Administrazio kontseiluan hamaika herri daude: Tolosa (lehendakaritza), Alegia (lehendakariordetza), Aduna, Alto, Anoeta, Asteasu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Villabona eta Zizurkil.

Txikia handitu nahian

Tolosaldea Garatzenek eskualdeko eragile ekonomikoekin egiten du lan, enpresetako garapena erdiesteko eta lehiakortasuna hobetzeko neurriak sustatzen ditu. Hazkundearen oinarriak sendotuz eta lanpostu berriak sortzeko gaitasuna handituz eskualdearen garapen bidean dihardu.

Enpresei aholkularitza eskaintzen die diagnosiak egin eta kudeaketan aholkularitza lanak eginez. Proiektu berrietan ere lan egiten du Tolosaldea Garatzenek, dirulaguntza eta finantziario iturriak buruzko informazioa eskaintzen die proiektu berritzaileei. Bitartekaritza lanetan aritzen da edozein motatako hobekuntzen beharrak agertzen direnean.

Agentziaren helburu nagusia eskualdeko enpresa txikiak haz-

ten, garatzen eta berritzen laguntzea da. Ekoizleekin lan egiteaz gain, Lanbide zerbitzuaren bidez, lan-merkatuko dinamizatzaile gisan dihardu.

Aipatu zerbitzu honen bidez, langabezia dauden edo lan egotera hobetu nahi duen edonork lan eskaintzak aurkitzeko gestioak egiten dira. 2007ko maiatzetik Immigrazio Zerbitzua du martxan Tolosaldea Garatzenek. Duela bi

Eskualdeko 28 herriek osatzen dute agentzia, Tolosak dauka lehendakaritza

Langile, langabe eta eragile ekonomikoekin egiten du lan Tolosaldea Garatzenek

Maila ekonomikoan eragiteko helburua du eta horretarako programa egokiak sustatzeko egiten dute lan

urte urtetatik lanean dihardu eskualdean eta oro har gertatzen ari den immigrazio fenomenoari erantzun egoki bat eman nahian.

Ospakizun eta ekitaldiz beteriko abendua

Ospakizun eta ekitaldiz beteriko abenduan barneratuta daude Tolosaldea Garatzenen.

Hamabost urteko lanaren hausnarketa egin eta gaurdainokoari begiratuz biharko planak egiteko, joan den hilaren 16ean Tolosako Frontoi jate txean orain arte lanean aritu diren ordezkari politikoak elkartu ziren.

«Etxeko ospakizun» izan zen, Jose Luis Urdangarin egungo gerentearen hitzetan.



Tolosaldea Garatzenek 15. urteurrena bete du aurten; denbora honetan 396 enpresa sortu dira. A.ALTUNA

Bestalde, hilaren 22an, Mondragon Korporazioarekin batera, ekimen berritzaileak sortzeko bigarren lehiaketako sari-banaketak izan zituzten.

Aurtengoan, Casa Eceiza izan da sariketan garaile suertatu dena. 6 proiektu aurkeztu dira aurtengo

edizioan. Saria epaitzerako orduan, izaera berritzaile izatea eta etorkizunean enpleguak sortzeko potentziala izatea hartu ziren kontutan. Datozen urteetarako ere, zenbait proiektu garrantzitsutan lanean ari da agentzia, hor dugu Lehiberri proiektua.

Maila ekonomikoaren eragin beharraz jabetzen dira, «programa egokiak sustatuz, berrikuntzekiko sentsibilizazioa bultzatzen saiatuko gara, horrela enpresek hobekuntzetan pausak eman ditzaten» Urdangarin gerentearen hitzetan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

«Eskualdean ikusten diren beharretara egokitzeko ahalegin bat egin behar da»

JOSE LUIS URDANGARIN Tolosaldea Garatzen-eko gerentea

Tolosaldea » Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen ekonomikoaren alde lanean dihardu krisi garai honetan.

A.ALITUNA

Alor desberdinetan aritzen da Tolosaldea Garatzen lanean. Enpresei eta ideia berritzaileei laguntza ematen dio, enplegu zerbitzua eskaintzen du, immigrazioaren inguruko lanketak egiten ditu eta eskualdeko turismoaren dinamizatzaileretako bat da. Zerbitzu zabala eskaintzen saiatu izan da hamabost urte hauetan. Jose Luis Urdangarin da egungo gerentea.

Eskualdean garapena sustatzeko agentzia da Tolosaldea Garatzen. Zein behar ikusi zen duela hamabost urte agentzia sortzeko?

Duela hamabost urte krisialdi bete-betean aurkitzen ginen. 90.hamarkadako krisia zen eta %20 gorako langabezia tasa genuen. Eskualde osoa nahiko kezkatua zegoen. Herri mailan ere zerbaitegin beharra ikusten zen, baina ez zen garbi ikusten herri txikien aldetik zer egin zitekeen. Orduan beste eskualdeetan egiten ari zen bezala, hemen ere agentzia sortzea erabaki zen. Garapen agentzia horren bitartez, politik aktiboak sustatzeko apustu bat egin zen eta apustu horri heldu zaio. Eskualdeka gaude antolatuta agentziak; guztiak daukagu xede berdina baina lan egiteko modu desberdinak ditugu, eskualde bakoitzera egokituak. Gure kasuan, batez ere enplegu mailan eta autoenplegu mailan apustu egitea erabaki genuen. Apustu ikaragarria izan zen. Aurrekoan bilkura eragin genuenean, garai hartan ordezkaritzan zirenen ahotik entzuten nuen, zenbat eta zenbat bilera egin behar izan zituzten horrelako apustu batean 28 herritik 27 sartzeko. Klase, kolore eta neurri guzti-tietako herriak ziren, baina guztiak interes orokor baten bila zebiltzanak eta horren aldeko apustua egin zen. Nire ustez inor ez da damutu. Hasieratik garapen bat izan du agentziak eta garai berrietara egokitzeko lana egiten ari gara.

Zeintzuk izan ziren hasierako erronka nagusiak?

Garaiko krisiari aurre egiteko enplegu politika aktiboak sustatzea izan zen hastapenetako erronka nagusia.

Gaur egungo erronkekin alderatu oate liteke?

Gaur egun ere, hamabost urte georoago, beste krisialdi batean aurkitzen gara, beste arrazoibatzuengatik etorri den krisia da baina azken batean eragin berdina sortzen du



A.ALITUNA

eskualdean. Azkenean, eragin lapertzena enpleguan jasandakoa izaten da. Alde horretatik, Tolosaldea Garatzenetik erronka hori mantentzen da, enplegua eta autoenpleguasustatzen lan egiten da. Horretarako, gaur egun eskualdean ikusten diren beharretara egokitzeko ahalegin bat egin behar da.

«Hamar urte hauetan 771 lanpostu sortu ditugu eta 396 enpresa berri»

«Tolosaldea Garatzenen hirugarren adarra lan eskaintzen bitartekaritza lana da»

Ahalegin hori bideratzeko azken hiru edo lau urtetan agentzia beregituratu dugu. Sail berri bat sortu da. Enpresa saila izenekoak: gure iritzi enpleguan eragiteko bi modu daude. Bata, langileei edo lan bila daudenei laguntzea eta bestea, informazio eta formazio mailan laguntzea. Azken hau betidanik garatu da Tolosaldea Garatzenek, baina beste bat ere badago: enplegatzaileekin lan egitea. Enplegua sortu nahi bada sortzen duten horiekin lan egitea ere beharrezkoa da. Gure lana enpresak ahalik eta lehiakorrenak izatea da,

ahalik eta gehien hazi daitezen eta ahalik eta baliabiderik gehien izan ditzaten egungo egoeratik modu onean ateratzeko.

Lanbideren egitasmoak ere aurrera jarraitzen du; eskualdeko puntu garrantzitsuenetako bat da lana aurkitu nahian dabilen bantzentz. Zein kudeaketa egiten du Tolosaldea Garatzenek?

Enplegu saila daukagu eta horrekin Lanbiderekin dugun hitzarmena aurrera eramaten dugu Lanbideren zentro laguntzailea garelako. Orientazioa eta prestakuntza indartu nahi ditugu. Orientazioari dagokionez, ikasketa plana egituratzen laguntzean datza gure lana. Kasu batzuetan orientazio lanaren ondorioa da prestakuntza baten beharra. Hirugarren adarra lan eskaintzen bitartekaritza lana da. Momentu hauetan harreman oso sendoa lortu dugu eskualdeko zenbait enpresa sektoreekin eta asko eta askok beren lan beharrak Tolosaldea Garatzenen eskutik bideratzen dituzte. Urte normal batean 300 bat lan eskaintza bideratzen ditugu, aurtengoa apalagoa izan da, denok dakigu zergatik. Baina mugimendu handi bat duen zerbitzu bat dela esan genezake. Behar batekin edo bestearekin urtean 2.000 lagun inguru pasatzen dira.

Enpresa egitasmo berriak egi bihur daitezzen zein lan egiten duzue?

Autoenplegu sail bat dugu, bideragarritasun plan bat egiten laguntzen zaio bere proiektua enpresa bihurtu nahi duen pertsonari. Horretarako dauden finantzazio iturrien informazioa ematen zaio, plana egiten laguntzen zaio eta instituzioetara iristeko ere laguntza jasotzen du gure aldetik. Tuto-

«Bere proiektua enpresa bihurtu nahi dutenei bideragarritasun plana egiten laguntzen diegu»

«Programa egokiak sustatuz berrikuntzekiko sentsibilizazioa bultzatzen saiatuko gara»

retza moduko bat da. Finantza erakundeekin akordioak ditugu baldintza samurragoetan maileguak sortzeko eta abar. Alor honetan 40-45 enpresa inguru sortzen dira urtean. Sail hau martxan dagoen 10 urte hauetan 396 enpresa sortu dira. Horrek 771 lanpostu suposatzen ditu eta 22 milioi eurotako inbertsioa. Denok dakigun bezala horietako asko enpresen merkaturan sartzen dira, beste batzuk erori egiten dira, baina badugu estatistika bat: 2005etik gaur arte erori den enpresa kopurua ez da batzuk uste duten adinakoa.

Immigrazioaren inguruko lanke-ta egina duzue. 2007tik Immigrazio Zerbitzua ere martxan duzue. Eskualdeko beharren aldaketaren ondorioa al da? Nola sortu zen zerbitzua?

Eskualdeko immigrazioaren egoeraren inguruko diagnostiko bat egin zen 2007an Tolosatik abiatuta, baina segituan ikusi zen eskualde mailako hedadura izan behar zuela proiektuak. Tolosaldea Garatzeni diagnostiko horretatik abiatuz immigrazio plan bat osatzen lagun zezala eskatu zioten. Ordezkaritza politikokoek halako apustu bat egitea pentsatu zuten eta plan hori abiarazteko zerbitzua martxan jartzea. Helburu nagusia koordinazioa bermatzea izan da, horretarako eskualdean immigrazioaren inguruan lanean ari diren eragileekin harremanetan jarri. Bestetik, Eusko Jaurlaritzatik datozen baliabideekin sentsibilizazio lana egin dugu. Datorren urtera begira bigarren plan bat egitea pentsatzen ari gara.

Krisiak nola eragin du eta eragiten ari da eskualdean?

Krisia eragin handia izaten ari da, enplegu galera nahiko gogorra izaten ari da eta oraindik ere izango da. Aurreikuspenak egitea arriskutsua izaten da.

Azterketa egiterako orduan eskualdeko krisiari krisi globala erantsi behar zaio. Azken batean, eskualdeko enpresak merkatu globalen lehiazten dira, euren salmenten ehuneko handi bat esportazioetara dago zuzendua. Krisiaren eragina nabarmentzeko orduan, beraz, garrantzitsua iruditzen zait beste eskualdeekin alderatzea. Tolosaldea batezbesteko mailan aurkitzen da momentu honetan. Urola Garaia, Goierrri eta Urola Kostak dituztelarik langabezia tasa altuenak. Gure eskualdeko garaiko zerbitzuetan indarra dauka eta gaurko krisiari erantzun nahiko ona ari zaio ematen. Bi ondorio nagusi atera daitezke; batetik, enpresen egoeraren ingurukoa-asko dira EREan sartuak daudenak, sartzekotan direnak, itxer daudenak... eta bestetik, biztanleriarengan izan duen eragina aztertu behar da, enplegu galearena.

Zeintzuk dira Tolosaldea Garatzenek dituen aurrera begirako erronkak?

Tolosaldea Garatzenek lan asko egin du hamabost urte hauetan. Aurrera begirako erronkei erreparratuta, zerbitzu jakin batzuk bultzatuaz, maila ekonomikoan eragin beharra dago. Proiektu berriak martxan jartzen ari gara, hor dugu Lehiberriren kasua. Pisu handia izango duen proiektu estrategikoa dugu hau. Enpresen zuzendaritza desberdinak, eskualdeko bi lanbide heziketak, hiru udalaxe, Innobask eta gu geu aurkitzen gara erronka berri honetan. Programa egokiak sustatuaz, berrikuntzekiko sentsibilizazioa bultzatzen saiatuko gara, horrela enpresak hobekuntzetan pausak eman ditzaten.

Musika Eskolaren ondoan dagoen Korazonisten Eliza okupatu zuten atzo Tolosako Inpernu Gazte Asanbladako kideek. Batzarrak egunero egingo dituzte 19:00etan, Inpernu Gaztetxearen atarian.

Inpernu berriro okupatu dute

ASIER IMAZ

Soluzioa=okupazioa filoso-fiak jarraitzaile burugogorak ditu Tolosan: Inpernu gazte asanbladako kideak. Abuztuaren 17an egin zuten bezala, atzo, berriro okupatu zuten Tolosako Musika Eskolaren ondoan dagoen Korazonisten Eliza. Lehen aldi hartan, lau egun iraun zituen okupazioaren ikurrak Inpernu Gaztetxearen kanpandorrean.

«Gaztetxea: behar bat»

Eliza Inpernu bilakatu zuten gazte asanbladako kideek atzo goizean. Behin barnean, garbiketa lanekin hasi ziren: «Lehenengo saiakera aurrera atera ez zen arren, gazteok gure helburuekin tinko jarraitzen dugu! Beraz, abenduaren 29an Inpernu berriro okupatua izan da. Orain garbiketa lanak egiten ari gara, eta tolosar ororentzat ateak zabalik ditugu. Eskertuko genuke herritarren parte hartzea eta laguntza okupazio hau aurrera eramanez ahal izateko».

Lehen saiakeran Ertzaintzak atera zituen Gaztetxetik. Orduan bezala, atzo ere poliziaren presentzia nabarmena zen Inpernu inguruan. Hala eta guztiz ere, gazteek gune horren beharra «ezinbestekoa» dela diote: «Azken urte hauetan Tolosako gazteon egoera ikusita gaztetxe baten berehalako beharraz jabetu gara. Izan ere, gazteriaren gehiengoa euren lokaletan biltzen da, herriko gainontzeko gazteekin hartu-emanak mugatuz; muga hauek urteko

egun gutxi batzuetan soilik apurtzen dira. Honen ondorioz, gazteok ez dugu aukera handirik gure artean ezagutzeko edota harremanak izateko, gure kezka eta arazo ez hitz egiteko, eztabaidatzeko eta nolabaiteko konponbidea emateko. Ezta gure trebetasunak elkarri erakusteko, ikastaro ezberdinak antolatzeke... Hala eta guztiz ere, aipatzekoak dira Tolosan dauden beste gune alternatibo batzuk, zein ez ditugun inongo momentutan baztertzeko».

Tolosako Inpernu Gazte Asanbladako kideentzat gaztetxe baten beharri aurre egiteko bidea okupazioa da, «eraikin hutsei probetxuzko erabilpena emateko; kasu honetan Apeadero ondoko elizari. Tolosan gainera, gazte asko izanik eta elizak duen handitasunagatik toki paregabea iruditzen zaigu. Horretaz gain, kontutan hartzea da bere kokapena. Honekin batera aipatu nahiko genuke gazteok horrelako leku bat edukitzea eskubide gisa ikusten dugula».

Ateak zabalik

Abuztuaren 20ean Inpernu berriro ere eliza bilakatu zen eta lehen saiakera hura bere horretan gelditu zen. Barnean ordea, dirudienek, zerbait piztu zitzaizkien hainbat tolosar gazteri eta horren adibidea hurrengo eguneko manifestazio «jendetsua» eta orain arteko lana izan dira: «Ezinbestekoa ikusten dugu leku autogestionatu *asanblario* bat, herriko gazte guztientzat erabat irekia izango dena. Honen



60 bat gazte elkartu ziren atzo 19:00etan Gaztetxearen atarian. ASIER IMAZ

harira sortu zen Inpernu gaztetxearen aldeko mugimendua. Gure helburuak lortzeko hainbat urrats eman ditugu, hainbat gazte elkartu baikara honen alde borrokatzeko, eta borroka honetara gazte berri ugari lotu baitira».

Inpernu Gaztetxearen azpian atzo burutu zuten okupatu ondorengo lehen biltzarra. 60 bat gazte elkartu ziren bertan eta ondoren-

go egunetan berdin jarraituko omen dute, hau da, 19:00etan Gaztetxearen aurrean elkartzeko: «Gune hau irekia da edonorentzat, beraz, hemendik gonbitea luzatzen diegu herritarrei, egun hauetan bertara gerturatu eta txokoa ezagutu dezaten». Laguntzera animatzen dena ere ongi hartua izango omen da Tolosako Inpernu Gaztetxean.

Jon Jaunarenak Zaldibarko Txapelketaren finala jokatu du bihar

Leitza » 'Ni ere pilotari' ekimenaren hirugarren jardunaldia Amazabalen jokatu da.

ERREDAKZIOA

Nafarroako Federakuntzak antolatutako *Ni ere pilotari* txapelketaren 3. jardunaldia jokatu da Leitza ingandean, 10:00etatik aurrera. Gipuzkoako *Emakume pilotari* ekimenaren antzekoa da *Ni ere pilotari* eta kirol munduan emakumearen parte hartzea bul-tzatzea du helburu.

Jaunarenak finala jokatu du Horretaz gain, Jon Jaunarena leitzarrak Zaldibarko Txapelketaren finala jokatu du bihar. Jaunarenak Garraldaren aurka jokatu du 22 urte azpiko mailan. Hilaren 2an berriz, Euskal Herriko elite mailako Txapelketa jokatu du leitzarrak Sopelan, 4 t'erdian eta Larrañagaren aurka.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

3 milioi euroko abala leku aldaketarako

Ekonomia » Eusko Jaurilaritzak eskaini dio abala Tolosatik Legorretara joan den Amaro Paper Fabrikari.



Amaroz Paper Fabrikaren egoitza zaharra Amaroztz auzoan. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Amaroz Paper Fabrika Tolosatik Legorretara mugitu zuten, eraikin zaharren lekuan 292 etxebizitza egiteko.

Lekualdaketa honi aurre egiteko «22,5 milioi euroko inbertsioa» egin zuen paper fabrikak.

Eusko Jaurilaritzak atzo onartu zuen bi urteko eta 3 milioi euroko

bermeak inbertsio horrekin dauka lotura. Horretaz gain, eskaintza onartzerako unean inguruko enpresa txikietan Paper Fabrikak

duen eragina ere kontutan hartu omen du Eusko Jaurilaritzak: «nazioartean duen maila altua, inguruko hornitzaileak mantentzen ja-

rraitu izana eta lantaldearen egonkortasuna kontutan hartu hartu ditugu».

2010erako 400 milioi euro

Amaroz Paper Fabrikaren berme eskaria aztertzerako unean, kapitala lau milioi eurotan zabaldu izana eta lantaldeari parte hartzen utzi izanasakon aztertu eta baloratu ditu Eusko Jaurilaritzak.

Azkenik, iturri berdinek jakinarazi dutenez, abal eskaintza hauen politikak 2010. urtean jarraipena edukiko omen du. Horretarako jadanik 400 milioi euroko partida bat onartuta dauka Eusko Jaurilaritzak.

Frantziako Les Petits Chanteurs de Saint-Marc abesbatza Leidorrera dator

Tolosa » Urtarrilaren 3an beraien azken diskoa aurkeztuko dute; dagoeneko 500 sarreratik gora saldu dira.

ERREDAKZIOA

Les Petits Chanteurs de Saint-Marc abesbatzak, hau da, *Los chicos del coro* filmeko abeslariak, beraien azken lana aurkeztuko dute datorren igandean, urtarrilak 3, Leidorren. Emanaldia 19:00etan izango da. Sarrerak 25 eurotan erosi daitezke 943 41 12 00 telefono zenbakira deituta, Leidorreko leihatilan, Kutxaren webgunean eta Servikutxan.

Datorren igandeko emanaldian beraien errepertorioko abesti ezagunak eskainiko dituzte. Honen baitan Gregoriano XX. mendera arteko musika sakratua aurkitu daiteke. Baita abesti folklorikoak nahiz Poulec eta Duruflueren musika garaikidea ere. Azkenik, beraien azken diskoak abestiak taularatuko dituzte.

Duela hogeita hiru urte hasi baziren ere, *Les Choristes* film arra-



Hamar eta hamabost urte bitarteko 55 gazteok osatzen dute Frantziako abesbatza. HITZA

kastatsua ondotik egin ziren ospetsu Lyongo abesbatzako haurrak. Aktoreak ez ziren haurrekin osatu zuen filma Christophe Barratier zuzendariak, eta emaitza ezin hobea izan zen. Musikaren bitartez haurrak heztea posible zela erakusten duen filma mundu osoko zinemetara heldu zen, kritika onekin eta sari ugariarekin batera.

Eguneroko eskolekin, entse-guekin eta jaialdiekin ohituta, 2004ko filmarekin heldu zen euren bizitzetan aldaketa. Berrehun bat abesbatzaren artean aukeratu zituzten filmeko protagonista izateko, eta filmeko musika ere berehala egin zen mundu osoan zehar ezagun. Oscar sarietarako izendapena lortu zuten eta bi milioi disko

saldu dituzte. Ibilbide motza badute ere, dagoeneko sei lan kaleratu dituzte.

Hamar eta hamabost urte bitarteko neska-mutiek osatzen dute Frantziako taldea, eta musika gregoriotarra dute ardatz, baina gaur egungo musikak ere leku garrantzitsua du. Nicolas Porte da zuzendaria.

Laburrak

Urtea amaitzeko kalejiran aterako da Musika Banda

TOLOSA » Tolosako Musika Bandak urtea ongi amaitzeko, eta nola ez, kaleak alaitzeko, kalejira egingo du Alde Zaharretik barrena. 20:00etan abiatuko dira Gorriti plazatik, ondoren udaletxe aldera abiatuko dira, eta Plaza Berrian amaituko dute ibilbidea.

Mulanboren 10. urteurrena ospatzeko festa

TOLOSA » Datorren larunbatean, urtarrilak 2, Mulanboren jaia izango da Bonbernean. 10 urte bete ditu Tolosako perkusio taldeak eta urteurrena behar bezala ospatzeko jaia egingo dute Bonbernean 22:30etik aurrera.

Mikel Azpillagaren lanak ikusgai daude Aranburun

TOLOSA » Mikel Azpillaga pintorearen lanak ikusgai daude Aranburu Jauregian. Erakusketa urtarrilaren 16ra arte dago zabalik. Bisita ordu-tegia ondorengo da: asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era. Erretratuak nagusi izan arren, egurrer euskarri gisa erabilita tresna ezberdinak erabili ditu artistak egun hauetan ikusi daiteken erakusketa osatzeko.

Urteari lasterka esango diote aurten ere agur, eskualdeko hainbat txokotan

Kirola » Tolosa, Lizartza, Villabona-Zizurkil eta Berastegin Urte Zahar eguneko krosak ospatuko dira bihar arratsaldean.

ERREDAKZIOA

Korri egiteko zaletasun handia dago eskualdean, eta urteko azken eguna ere horren erakusle izaten da. Oraingo honetan ere lau tokitan antolatuko dituzte Urte Zaharrek edo San Silbrestre eguneko krosak: Villabona-Zizurkilen, Tolosan, Berastegin eta Lizartzan.

Lasterketa herrikoia direnez, denetan ere, parte-hartzea bultzatu nahi dute antolatzaileek, eta egin beharreko distantziak, bost kilometroren bueltan dabilta kasu guztietan.

Villabona eta Zizurkil artean, XXVI. Urte Zaharreko lasterketa ospatuko da bihar. Krosa 16:00etan hasiko da benjaminekin; alebinen txanda 16:10ean izango da; infantilak eta kadeteak 16:28ean abiatuko dira; eta jubentzen, nagusiek eta beteranoeak 16:30ak arte itxaron beharko dute. Amaitzean, urtero bezala, sari banaketa egingo dute.

Hamabigarrenez Tolosako kaletatik barrena, elkartasuna ardatz hartuta, ehunka lagunek hartuko dute parte Samaniego-Orixetik antolatutako krosean. Benjamin, alebin, infantil eta helduen taldeetan banatuko dira parte-hartzaileak. Txikiak, 15:30ean abiatu dira Zerkasititik, eta hurrengo mailatakoak, ordu erdiro. Urtero bezala Elkartasun krosean biltzen duten dirua Guabas errekararen inguruan (Kolonia) bizi den komunitateko Mando liburuzaina proiektuaren jarraipena egiteko erabiliko dute. Izena, egunean bertan, lasterketa hasi au-

rretetik, Zerkasian, eman ahal izango da.

Lizartzan, Otsabio mendi elkar-teak antolatuta kros herrikoia egingo dute bihar. 17:00etan hasiko da, txikiak, eta ondoren, helduen txanda izango da. Izenematea dohainik egin ahal izango da lasterketa hasi baino pixka bat lehenago. 70 lagun inguruk hartzen dute parte bertan, eta aurtengoan ere, ohiturarekin jarraituz, lasterketa amaitu ostean, txokolatea banatuko dute lasterkarien artean. Proba herrikoia denez, hemen ere, parte-hartzaileek bost kilometro inguru korritu beharko

dituzte. Berastegin ere urteko azken eguneko tradizio bihurtu da krosarena. Urepele elkarteak antolatuta, 18:00etan txikiak hasiko dira lasterketarekin. Ordu erdi bat beranduago, helduek korrituko dute. Ibilbideak 1,15 kilometroko luzera du eta haurrek itzuli bat eman beharko diote honi. Helduek berriz, lau, 4,6 kilometro osatuz. Gaur da elkartearen bertan izena emateko azken eguna, nahiz eta egunean bertan, lasterketaren irteera puntuan ere egin ahaliko den. Aldez aurretik izena emanaz gero, 12 urte bitartekoek hiru euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko, gainontzekoek berriz, lau. Egunean bertan bakoitzak bi euro gehiago jarri beharko ditu. Lasterketa amaitzean kamisetak banatuko dituzte oroi-garri gisa eta hainbat sari ere zozketatuko dituzte.



saridunak

LAGUN ARO GBC CAJA LABORAL BASKONIA

saskibaloia paritidarako

Urtarrilak 3 • Igandea • 12:30ean Donostiako Ilunben

KARMELE ARSUAGA

sarrerak HITZAko gure egoitzan jaso

Txintxarri Abesbatza jarri da 50. urteurrenari begira

Alegia » Eguberrietako kontzertua eman zuten nagusien eta txikien abesbatzek; oso txalotua izan zen emanaldia.

ERREDAKZIOA

Eguberrietako doinu ezagun ugari entzun zen joan den igandean Alegiako Juan Bataiatzailea Deunaren elizan. Urtero legez, Eguberrietako kontzertua eskaini zuten Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek. Abesbatzaren 50. urteurrenko aipamenik ez zen falta izan.

Izan ere, Txintxarri abesbatzak mende erdia beteko du hastear den 2010. urtean. Lehen kontzertua 1960ko Errege Egunean eman zuen koruak, eta hori gogoan izan zuten joan den igandeko emanaldian. Garbi utzi zuten garai hartako abeslariak utzitako lekukoari eusten diotela.

Koruko gazteenak izan ziren kantuan lehenak. Japonieraz abestu zuten lehenbizi: *Canço japonesa*. Horretarako elizako argiak itzali eta kolore desberdineko esku-argiekin marrazkiak egin zi-



Eguberrietako kontzertuaren memento bat. EDUARDO ARRAYET

tuzten. Euskarazko doinu batekin amaitu zuten euren lana Idoia Iraolaren zuzendaritzapean: David Azurza tolosarrak harmonizatutako *Birjina maite*. Txintxarri Txiki-ko hamabost abeslariak, euren zuzendariak eta pianoan lagundu zuten Aitor Iraolak txalo zaparrada jaso zuten.

Ondoren, zazpi abesti eskaini zituen helduen abesbatzak Garbiñe Orbegozoren gidaritzapean. Entzuleak agurtzeko David Azurza tolosarrak moldatutako *Dios te sal-*

ve koplak aukeratu zuten. Gizon eta emakumeen arteko elkarriketa bat irudikatu zuten. Horretarako, emakumeak alde banatan zituztela agertu ziren koruko gizona zuzendariaren; kantuak aurrera egin ahala emakumezkoak bere tokira itzuli ziren.

Ding Dong, Merrilyon High jatorriz frantsesa den doinua izan zen euskara ez den beste hizkuntza batean kantatu zuten bakarra. Abesti alai eta erritmo handikoa da, Joyce Barhelsonek moldatutakoa.

Entzuleek asko txalotu zuten beste kantua *Elurra mara mara* izan zen. Aspaldiko doinua da, oso ezaguna euskal kantutegian, baina jatorriz doinu errusiarra da, Serge Jaroff errusiarrak konposatutakoa. Eguberri lotutako bestelako doinuak ere entzun ziren, Ignacio Mocoora tolosarraren *Alleluia* edota Jose Olaizola hernaniarraren *Artzaiak* zortzikoa.

Kontzertuaren amaiera aldera Julen Ezkurra arabarraren bi euskal kantu eskaini zituzten: *Aritz adarrean* eta *Katalin*. Alberto Santosek moldatutako *Izar eder bat degu* abestia bakarlari gisa aritu ziren Xefe Balerdi eta Elena Alustiza koruko abeslariak. Abesbatzak Mariaje Rekondoren laguntza izan zuten pianoan.

Emanaldia bukatzeko, Txintxarri abesbatza elizako korura igo zen eta Haendelen *Alleluia* abestu zuten Mariaje Rekondo organoan zela. Aurten 25. urtea zen Eguberrietan *Alleluia* kantatzen hasi zirela. Txalo zaparrada eskaini zieten entzuleek.

Urteberri eguneko meza

Txintxarri abesbatzak kantuan ekingo dio urte berriari. Urteberri eguneko meza nagusian parte hartuko du Alegiako elizan. Jerry Esstes estatubatuarren *Gloria* bertsiio modernoa eskainiko du, baita *Mesias Sarritan* kantua ere. Xefe Balerdik egingo du bakarlariarena azken kantu horretan.

Laburrak

Zozketaren zenbaki sarituak 225 eta 1689 dira

ABALTZISKETA » Guraso elkarteak antolatutako zozketaren bi sarien zenbakiak jakinarazi dituzte. Lehenengo sariaren zenbakia, saski eder bat jasoko duena, 225 da. Bigarren sariaren zenbakia 1689 da eta bi lagunentzako afaria jasoko du txartela duenak.

Intxurren Gabonetako loterian jokaturakoa tokatu

ALEGIA » Intxurre elkartearen Gabonetako loterian jokaturakoa tokatu zaie txartela erosi dutenei. Beraz, txartel bakoitzeko lau euro jasoko dituzte. Dirua jasotzeko Alegiako jubilatuen taberna joan behar da urtarilaren 1etik aurrera. Eguneroko, astelehenak ezik, 09:00etatik 18:00etara joan daiteke bertara.

Akelok-en zozketak baditu zenbaki sarituak

AMEZKETA » Akelok Guraso elkarteak antolatuta zozketako hiru zenbaki sarituak jakinarazi dituzte. Lehenengo saria, otarra, 1655 zenbakiarentzat izan da. Bigarrena, landa etxe batean asteburua eta 300 euro, 2394 zenbakiarentzat. Hirugarrena, 150 euroko afaria, 2579 zenbakiarentzat.

Ikuskizunak eta imajinazio lanketa Eguberrietan

ERREDAKZIOA

Hainbat herritan kultur eta aisialdi ekitaldiak izan zituzten atzo Eguberrietan udalek antolatu dituzten egitarauen baitan. Atzokoan ikuskizunak izan ziren Ibarren eta Iruan. Zizurkil eta Adunan imajinazio lantzeko aukera izan zuten, batean jolasean arituz eta bestean postal tailerra eginez.

» GAURKO EKITALDIAK

Ibarra

■ **11:30.** *Kanpanilla* eta *Peter Panen itzala* Kultur Etxean.

Irua

Gaztelektik antolatuta Bilboko Eguberrietako Parkera txangoa egingo dute.

■ **11:00-13:00.** Liburutegia eta haur txokoa.

■ **17:30.** *Goazen itsasora* ipuin-musikatua Musika Eskolan.

Tolosa

■ **11:00-13:30 eta 14:30-20:00.** Haur parkea Zerkausian.

■ **17:00.** Eskularen tailerra Topagunean.

Zizurkil

■ **09:30-13:00.** Jolasak Pedro Mari Otaño eskolan.



Ibarren Iker Diazek ipuin-musikatua antzestu zuen atzo Kultur Etxean. Zizurkil haurrak jolasean aritu ziren Pedro Mari Otaño eskolan. I. GARCIA



Dar Dar taldeak emanaldia egin zuten atzo Iruako Musika Eskolan. Adunan postalak egiten aritu ziren liburutegian. I. GARCIA



Urteko azken egunean Herri Kirol jaialdia Usarrabin

Asteasu » Perurena II.aren marka saiakera eta Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa 16:30ean hasiko da.

ENERITZ MAIZ

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere Asteasun urteari amaiera herri kirol ekitaldi garrantzitsuarekin emango diote. Jaialdia Usarrabi frontoian izango da 16:30etik aurrera. Alde batetik, aizkolaria eta bestetik, harri jasotze-

ko marka ahalegina izango dira. Aizkolarien artean, Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa 2009-2010, Eusko Label Sari Nagusia jokatu da. Bi taldetan banatuta ariko dira eta A taldean, Antonio eta Aitor Senosiain anaiak osatutako bikotea, Floren Nazabal eta Arkaitz Jauregik osatutakoaren aurka lehiatuko da. B taldean berriz, Arria V eta Txapartegi bikotea, Zubiaga eta Jexux Mari Mujika ibartarrak osatutakoaren aurkako ariko da.

Egin beharreko lana, 30 enbor 6 modalitate ezberdinetan ebaki-

tzea izango da. Olagueko anaiak, bikote nafar-arabarraren aurka galduko balukete, 2010eko final laurdenetarik kanpora geldituko liriteke. Hauek, hilaren 5ean Lizarran jokatu zen lehen kanporaketan, Azpilikueta eta Mugerza II.aren aurkagaldut baituzten.

300 kiloko harria

Aurten ere, Inaxio Perurena leitzargaztea, Asteasuko Usarrabi pilotalekura saiakera berri batekin gerturatuko da. Aurten zerbaki borobil-borobila du bizkar gainera jasotzea helburu, 300 kiloko harri

» ABENDUAK 31

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa

■ **A taldea.** Antonio Senosiain eta Aitor Senosiain, Floren Nazabal eta Arkaitz Jauregiren aurka.
■ **B taldea.** Arria V eta Txapartegi, Zubiaga eta Mujikaren aurka.

Inaxio Perurenaren harri jasotze marka saiakera

■ **300 kilo.** 300 kiloko harria jasotzeko ahalegina egingo du.
■ **Non.** Asteasuko frontoian.
■ **Noiz.** Abenduaren 31ean, 16:30etik aurrera.

errektangeluarra izango du lagun, hain zuzen ere. Ea urteari amaiera ona emateko moduan den eta Leitzara 300 kiloko harria bizkarrean berdin daitzultzen den.

Laburrak

Txotxongilo emanaldia 17:30ean Kultur Etxean

ELDUAIN » Gaur Elduaingo haur, gazte nahiz helduek, txotxongilo emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute herrian bertan. Larte Kultur Etxean izango da eta 17:30ean hasiko da saioa. Emanaldi hau, Txotxongilo Taldeak aurkeztuko du eta Kutxak eskaini eta Elduaingo Udalak lagundurikoa da.

'Kika Superbruja' eta 'Spanish movie' filmak

VILLABONA » Gurea Zinemaren larunbatean urtarrilak 2, 17:00etan, *Kika Superbruja* filma eskainiko dute. Ondoren, 19:30ean eta 22:30ean, *Spanish movie* filma izango da. Igandean, urtarrilak 3, 17:00etatik aurrera *Kika Superbruja* filma egongo da eta 19:30ean eta 22:30ean, *Spanish movie* filma ikusteko aukera izango da. Urtarrilak 4, astelehena, ikuslearen eguna da eta 21:30etik aurrera, *Spanish movie* filma proiektatuko dute berriz ere.

Ez ohiko osoko bilkura gaur 20:30ean

AMEZKETA » Gaur, 20:30ean Amezketako udaletxeko pleno aretoa, ez ohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste gai hauek jorratuko dituzte: obra lizentzi eskaera ezberdinak, bermea itzultzea, 2010eko Plan E-rako Udalerriko Oinarriko saren eta pabimentoaren berritzea proiektu onartzea eta finantzaketarako laguntza eskatzea, Amezketako Hirri Antolamenduko Arau Subsidarioen 1. aldaketa puntualaren behin-behineko onarpena, batzorde informatiboa eta *Egunkariaren* aldeko zein Aramaioko alkatearen babes moziok.

Atsedenarekin parte hartzeko izen ematea

TOLOSA » Atsedena Aisialdi Taldeak, urtero bezala Inauterietan konpartsa aterako du. Atsedenarekin parte hartu nahi duen orok, 635 746 447 telefono zenbakira deitu eta izena eman dezake. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 8a, ostirala, izango da.

«300 kiloko errekorra beste edozein errekor bezala hartzen saiatu naiz»

INAXIO PERURENA Harri-jasotzailea

E. MAIZ

Inaxio Perurena (Leitza, 1984) leitzarra prest dago 300 kiloko harri errektangeluarra bizkar gainera igotzeko. Azken entrenamenduak egin ditu eta ate joka duen urteko azken eguna iritsi zain dago.

Zer moduz sentitzen zara erronkaren bezperan?

Egia esan jada urduri nago. Normala da baina eguna iristeko zain nago. Orain txex egin dut (atzo goizean) pisuekin entrenamendua, izerdi pixka bat atera gorputza aktibo edukitzeko, dutxa bat hartu eta luzaketa batzuk egin ditut. Zain nago eta ea ongi ateratzen den. Karrantorik eta ez dut harrapatu eta ea ongi joaten naizen.

Zein prestaketa egin duzu 300 kiloko harria jaso ahal izateko?

Uda garaia amaitu zenean, pisuekin hasi nintzen eta gorputza kilok hartzera ohitu nuen. 300 kilokoari ekin niezaiokeela ikusi nuen, abenduaren 31rako plaza prest egon zitekeen hitz egin nuen eta jada etxean jasoaldiak lortuak nituenean, data konfirmatu nuen. Ez dut entrenamenduetan deus berezirik egin, aurreko urteetan egin izan dudanan berdina da. Uda garaiko erakustaldiak amaitzen direnean, negurako gorputza prestatu eta pisu pixka bat hartzen saiatzen naiz.

Baina harriaren kiloak gorantz joateak eragina izango du.

@ Ikus-entzunezkoak. Webgunean, ikus-entzunezko ugari topatuko dituzu. Festa edota ekitaldi berezien bideoak ditugu ikusgai. Horretaz gain, argazki bilduma handia dugu herrira, atalka nahiz ekitaldika antolatuta. Bestalde, parte hartzeko hainbat atal ere baditugu; eztabaida eta inkestengunea esaterako:

www.tolosaldeko hitza.info



IMANOL GARCIA

Horri aurre egitea oso erraza da. Harriarekin kilo gehiago altxa behar badituzu, pisuetan ere kilo gehiago mugitu behar dituzu. Nolabait gorputza kilo horiek jasotzera ohitu behar duzu, behin eguna gerturatzan ari denean, pisuekin lan gutxiago egiten da eta harriarekin maizago entrenatzen gara. Nolabait formula ikasia da.

Zer suposatzen du 300 bezalako zerbaki borobilak?

Zerbaki aldaketa dago. Urte dezentente pasa ditut 2-a aurrean nuela, baina galdera hau askotan egin didate eta nik alde batera utzia dut. Beste errekor bat balitz bezala har-

tu nahi izan dut, urduri ez joateko. Hala ere, buruan dabilkit eta zerbaki oso dotorea da. Era berean, oso pertsona gutxiak lortu dute. 295 kilokoa jaso dut eta 300 kilokora ez dago hainbesteko alderik, baina muga horrek beste erreakzio bat egiten du eta hori jendearengan sumatu dut.

Abenduak 31, Urteaz eguna, jana eta edana. Apustu bat egiteko ez da urteko garairik onena.

Ez da datarik egokiena eta gainera 31 berri egun arraroa da. Eguberri bezperan afari normala egin nuen eta Eguberri egunean bertan, harriarekin entrenamendu serioa

egin nuen. Gurasoak izugarriko bazkaria egiten eta ni, errekorra izango den ordu berean entrenamendua egiteagatik, arin arin bazkaldu, siesta egin eta entrenatzera. Pixka bat aparte zaude. Behin 31koa pasata niretzat orduan hasiko dira Eguberriak eta ongi aterako balitz oraindik ere poztasun gehiagorekin.

Zergatik Asteasun?

Beste edozein lekutan ere berdin berdin izan zitekeen. Asteasukoak jada ilusioa egiten dit eta prestatu egiten naiz. Etxetik oso gertu daukat, leku oso ona da, ezaguna eta frontoia gustuko dut. Data horietan non egin zitekeen eta Asteasun Urrezko Aizkorekin batera egin zitekeela eta aurrera egin nuen, ezaguna eta gustukoa dudalako. Jada erreferentzia bat dut abenduaren 31koa, bertan jaialdi polita egiten da, jendeak erantzun egiten du eta prestatzen hasten naizenean, lehenbiziko muga abenduaren 31rako prestatzea izaten da. Hala ere, ez da deus pasatzen egun horretarako ez banaiz prestatzen eta beranduago egin behar bada. Baina aurten ere 31rako prestatu naiz eta jada ez dago atzera bueltarik.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ Eskiatzeko bi makila.

Eskiatzeko bi makila aurkitu ditugu. Galdu dituenak ondoko telefonoz zenbakira deitu dezake: 628 697 587.

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfobrak, etxeak, bulegoak, etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Gurutze: 638 94 46 04 / Belen: 695 70 82 71 telefonora.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



15°
9°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

- **Tolosa.** *Checkpoint rock* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.
- **Tolosa.** *Prop & Berta* haurrentzako filma euskaraz Leidor aretoan 17:00etan.
- **Alegia.** 21:30ean zine-kluba Gaztetxean, 22. urtemuga dela eta.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Saskien zozketak nonahi

ERREDAKZIOA

Eguberrietan gaude, bete bete, eta Olentzerorekin, kantuekin eta beste hainbat ohiko hitzorduekin batera, bada urtero errepikatzen den beste kontu bat: saskien zozketena, hain zuzen.

Tolosako Igarondo Merkataritza Elkartek atzo banatu zituen sariak. Aurtengo honetan, produktu ezberdinekin osatutako 80 saski zozketatu dituzte bezeroen artean. Saltoki bakoitzak zozketa propioa egin zuen hilaren 22an bere bezeroen artean eta saridunek jaso dute jada saskia. Irabazleak gustura agertu dira aurtengo



Tolosako Igarondo Merkataritza Elkartek Eguberri saskiak banatu ditu. E. EZEIZA

Gabonetako kanpainarekin. Beraien hitzetan, «hobe da, gisa honetan, irabazle gehiago baitaude». «Saria ez da beste urteetako bezain potoloa, baina gehiagok jasotzen dugu», gaineratu zuten.

Villabonako Oinkari dantza taldeak ere egin du bere zozketa. Hilaren 22ko loteriaren azkeneko lau zenbakidunak, 8294 duenak, irabazi du, hau da, Nerea Oiarzabal Oinkariko dantzari gazteak. Oiarzabalek bere ahizparekin, Liderekin, jaso zuen saria Garmendia harategiko arduradunaren eskutik. Otar ederra eta Asteasu Sarasola sagardotegian bust laguntzako afaria irabazi ditu.

Eskuratu

elko Bertsolari Txapelketa Nagusiko **DVDa berria**ekin

gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

txapelketako berriak hautatuak 2 DVDtan

ABENDUAREN **24**TIK AURRERA,
zure kioskoan



+ 12 €

Baduzu zer oparitu
Gabon hauetan!

aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria



Nerea Oiarzabal eta bere ahizpa, Lide, Garmendia harategiko arduradunarekin.

skunkfunk
people de funk

neska eta mutil arropa

• Skunkfunk Tolosa
Kale Nagusia 21-23

Etor zaitez SKFK ezagutzera, Skunkfunk-en linea berria